


BALIABIDE GIDA,
SEXU-ESPLOTAZIORAKO
GIZAKIAK SALEROSTEARI
BURUZ



**PROFESIONAL eta
HERRITARRENTZAT, oro har**
2010eko Abendua

HERRIZAINGO SAILA / DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Genero-indarkeriaren Bikimek Laguntzeko Zuzendaritza
Dirección de Atención a las Víctimas de la Violencia de Género

EDUKIA

Sarrera	3
Zer da Pertsonen Salerosketa?	3
Nortzuk dira edo izan daitezke Salerosketaren Biktima?	4
Nola erakar daitezke Salerosketaren Biktimak?	4
Nola jakin dezaket ezagutzen dudan pertsona bat sexu- esplotaziorako Salerosketaren Biktima den?	5
Zein eskubide ditu salerosketaren biktimak?	6
Nora jo daiteke egoeraren berri emateko?	9
Nortzuk lagun diezaizokete Salerosketaren Biktimari?	10
Errekurtsoen zerrenda	11

Pertsonen Salerosketa sexu-esplotaziorako

SARRERA

Gida honen bidez, sexu-esplotaziorako salerosketaren errealitateari buruzko ezagutza handiagoa hedatu nahi da eta dauden errekurtsioei buruzko oinarrizko informazioa eman nahi zaie, bai eremu desberdinetako profesionaleri, bai herritarrei, orokorrean. Salerosketa zer den eta salerosketaren biktimak nola identifikatu ahal diren azaltzen du, eta, gainera, informazio gehiago eskuratzeko edo egoera horiek salatzeko zein erakundeetara jo daitekeen jasotzen du.

ZER DA PERTSONEN SALEROSKETA?

Pertsonak erakarri, garraiatu, lekualdatu, hartu edo jasotzea, mehatxu, indarkeria edo beste bortxapen-modu batzuez baliatuz (bahiketa, iruzurra, gezurra, boterearen edo ahulezia-egoeraren gehiegikeria, edo ordainketa edo onuren emakida edo hartzea), beste pertsona baten gaineko agintea duen pertsonaren baimena lortzeko, esplotazio-helburuetarako. Esplotazio horretan sartuko dira, gutxienez, besteren prostituzioaren esplotazioa edo sexu-esplotaziorako beste modu batzuk, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko praktikak, mirabetza edo organoen ateratzea.

Salerosketa herrialde baten barruan edo herrialde desberdinen artean egin daiteke.

Gizakien Salerosketak gizon-emakumeei eta haurrei eragiten die munduko leku guztietan. Hala ere, emakumeak eta neskatok dira biktima ugariak,

sexu-esplotaziorako salerosketen %80 osatzen baitute¹.

Sexu-esplotaziorako salerosketa nazioarteko eskubidearen aurkako krimena, giza eskubideen urratze larria eta emakumeen kontrako indarkeriaren adibidea da.

Sexu-esplotazioan prostituzio behartua, material pornografikoaren sorrera eta besteentzako sexu-faboreak edo zerbitzuak sartzen dira. Klub, pisu eta masaje-zentroetan edo konpainiarako nesken edo etxez etxeko masajeen zerbitzuen bidez egiten da.

Salerosketa pertsonen oinarriko eskubideen urratzea eta krimena da. Halaber, genero-indarkeriaren adibide bat ere bada, pertsonak menderatu, kontrolatu eta esplotatzen baitira, batez ere emakumeak, beren esplotatzaileen esku dauden objektu huts gisa ulertzen direnak.

NORTZUK DIRA EDO IZAN DAITEZKE SALEROSKETAREN BIKTIMA?

Edozein pertsona izan daiteke Salerosketaren Biktima bere herrialdean bertan, alboko herrialdean edo beste kontinente batzuetan.

Biktima izateko arrisku gehien dutenak honakoak dira:

- gatazka armatuko guneetatik edo gerra zibil eta hondamendi naturalak jasan dituzten lekuetatik datozenak;
- emakume gazte migratzaileak, haurrak pobrezia-egoeran;
- krisi ekonomiko larriko guneetan bizi diren emakume, gizon eta haurrak, hezkuntza eta lanerako aukerarik ez dutenak.


NOLA ERAKAR DAITEZKE SALEROSKETAREN BIKTIMAK?

Pertsonak salerosketarako sareen edo pertsona indibidualen bidez erakar daitezke. Hainbat bide daude:

- Modelo izateko, lanerako edo ezkontza-agentzietarako kontaktuak

⁽¹⁾ UNODC (2007) Global report on Trafficking in Persons.

Hemen: www.unodc.org/documents/human-trafficking/Global_Report_on_TIP.pdf



eskaintzen dituzten iragarkiak edo interneten aurkitutako pertsonak.

- Arlo desberdinetan (prostituzioa barne) lana edo diru erraza lortzeko promesen bidez biktimak engainatzen dituzten senide, lagun eta ezagunak.
- Egoera zailletako biktima izan daitekeen pertsona erreskatatzea zin egiten duten maiteminduak edo “printze urdinak”: lehenengo, ustezko harreman afektiboak ezartzen dituzte, eta, konfiantza lortutakoan, biktimak engainatzen dituzte.
- Etxeetan, tabernetan eta ostalaritzan, modelo, dantzari eta bestelako lanak eskaintzan dituzten prentsa-iragarkiak.
- Bahiketak.

NOLA JAKIN DEZAKET EZAGUTZEN DUDAN PERTSONA BAT SEXU-ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN BIKTIMA DEN?

Oso posiblea da pertsona bat sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izatea, baldin eta:


- ... lanean behartuta badago, esplotazioko baldintza osasungaitzetan.
- ... jasotzen dituen aginduak bete ezean berari edo bere familiari gauza txarrak gerta dakizkiola dioten mehatxuak jasotzen baditu.
- ... iraganean prostituzioan aritu bada ere, orain beste pertsona batzuek behartuta ari bada horretan.
- ... egin beharreko lan-motari edo lan-baldintzei buruz gezurra esan badiote.
- ... “jatorrizko pakete” baten barruan iragarritako prostituzioan egiten badu lan, adibidez “neska orientalak”
- ... sexu-erasoak jaso baditu.

Pertsona bat sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima izan daitekeela adierazten duten ezaugarriak:

- Ezin du bere agirietara jo (NANa, pasaporte, egoitza-txartela, etab.).
- Immigrazioko paper faltsuak ditu.
- Oso diru gutxi du eskuragarri, edo bat ere ez.
- Hitz egiteko beldur da, berari edo bere familiari zerbait txarra gertatuko ote zaion beldur da.
- Indarkeria fisikoa jasan izanaren zantzuak ditu (ubeldurak, zauriak, bizkarreko mina).
- Beldurra, konfiantza falta, antsietatea eta urduritasuna antzematen zaizkio, etsaitasuna barne.
- Egiten duenari edo bere bizitzari buruzko informazioa emateko orduan mesfidati ageri da eta halako informazioa ematen badu, “entseatutako” erantzunak ematen edo aginduak betetzen ari dela dirudi.
- Tratamendurik jasotzen ari ez diren gaixotasunak ditu.
- Denbora luzea darama herrialdean eta ez du hizkuntza ezagutzen.
- Ez daki zein hiritan dagoen.
- Ez dauka mugitzeko askatasunik, irteten den aldiro bere lankideren batekin dago eta ezin du lana edo hiria aldatu bere borondatez.
- Bere lantokia eta etxea leku bera da edo bere lantokiak eta etxeak segurtasun-neurri handiak ditu, besteak beste, burdin hesiak edo zaintza-kamerak.
- Mendekotasuneko markak edo osagarriak ditu, hala nola, tatuajeak edo budu-osagarriak.
- Hainbat erredura ditu.
- Ez dauka bere sare naturalekin eta senideekin harremanik.
- Droga-mendekotasun egoeran dago.

ZEIN ESKUBIDE DITU SALEROSKETAREN BIKTIMAK?

Euskal Autonomia Erkidegoan, Espainiar Estatutako gainerako erkidegoetan



bezala, salerosketaren biktima orok esplotazio-egoeratik alde egiteko aukera desberdinei buruzko informazioa eta babesa jasotzeko eskubidea du, Espainian bizitzeko legezko baimena ez badu ere.

Legeak honakoak bermatzen dizkie Salerosketaren Biktimei:

- Babesa eta segurtasuna.
- Ostatu segururako aukera.

Gainera, honakoak jasotzeko eskubidea dute:

- Aholkularitza juridikoa beren hizkuntzan edo uler dezaketen hizkuntzaren batean.
- Arreta medikoa eta psikologikoa.

Herraldean legez bizitzeko baimenik ez badute, Atzerritarren Legearen arabera Salerosketaren Biktimek **gutxienez 30 eguneko epea izango dute beren burua berrezarri eta hausnartzeko**, eta, edonola ere, epe hori nahikoa izan beharko da errekuperatu ahal izan daitezen eta beren lekualdaketaren eta esplorazioaren onuradun izan diren pertsonen aurkako ikerketa judizial eta/edo polizialean lagundu nahi duten erabaki dezaten.

Epe horretan, babesa eta laguntza emango zaizkio biktimari esplotaziotik alde egiteko dituen aukera posible guztien gaineko informazio egokia izan dezan eta erabakirik onenak hartu ahal ditzan inguru seguruan.

Salerosketaren Biktima batek laguntza eskatzea erabakitzen badu, honako eskubideak izango ditu:

- Berak ulertzeko moduko hizkuntzan babesa eta informazioa jasoko du, erabakiak hartu ahal ditzan.
- Konfidentzialtasuna bermatuko da une oro.
- Ez du epairik edo kritikarik jasoko prostituzioan aritu izanagatik edo iruzurra jasan izanagatik.

- Tratulariak salatu nahi dituen erabakitzeke denbora izango du.

Biktimak bere burua berrezartzeko eta hausnartzeko epea hasten badu

- Aldi baterako etengo dira Atzerritarren Legea aplikatuz pertsona interesdunari ireki ahal izan zaizkion zigor-espeditentak, baldin eta Gobernuko Ordezkaritzak edo Ordezkariordeztzak horien gaineko eskumena badu.
- Gobernuko Ordezkaritzak edo Ordezkariordeztzak biktimaren egoeraren berri emango dio beste edozein instantzia zigortzaileri, zigor-espeditentak berehala eten ditzan aldi baterako.
- Itzultzeko edo kanporatzeko aginduen betearazpena aldi baterako etengo da.
- Berehala aske utziko da, Atzerritarren Barneratze Zentro batean baldin badago.
- Polizia-unitate eskudunak bere babesa eta segurtasuna bermatuko ditu.
- Laguntza medikoa eta psikologikoa.
- Doako laguntza juridikoa berehala eta interprete eta guzti.
- Erabateko laguntza-zerbitzuetara bideratuko da, besteak beste, salerosketaren biktimei harrera egin, tratamendua eskaini eta arreta emateko espezializazioa duten gobernu kanpoko erakundeetara.

Biktimak ikerketa eta/edo prozesu judizialean agintariekin lankidetzan aritzea erabakitzen badu edo bere egoera pertsonalak hala eskatzen badu:

- Administrazio-erantzukizunetik salbuetsi ahalko da.
- Egoitza eta lanerako baimena lortu ahalko du, Espainian aparteko egoeran egoteagatik.
- Prozedura guztietan ez du agiririk aurkeztu beharko, baldin eta eskaera horrek arriskurik eragiten badio.
- Bere jatorrizko herrialdera bueltatu ahalko da lagunduta, hori aukeratu badu.

Eta ahalegin posible guztiak egingo dira:

- Lekukoak Babesteko Programan sartzeko. Hau da:
 - Iraupen ekonomikoa
 - Intimitatea ahozko ikustaldietan
 - Helbide-aldaketan erraztasunak
 - Identifikazio-datuen sekretua polizia-argiketetan
- Lanerako prestakuntza-programetan parte hartzeko.

Egun, biktimen onura eta erraztasunetarako hobekuntzak egiten ari dira, eta, ondorioz, horri buruzko informazioa jasotzea komeni da, errekurso eta eskubideen etengabeko eguneraketaren berri izateko.

NORA JO DAITEKE EGOERAREN BERRI EMATEKO?

900 840 111

Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren **doako telefonoa. 24 orduko arreta eskaintzen die Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren biktima izan direnei. Konfidentziala da, zentzumenen gaigabezia dutenei egokituta dago eta 51 hizkuntzarako aldi bereko itzulpen-zerbitzua du.** Informazioa, orientazioa, konpainia, biderapena, eta entzuteko eta orientatzeko arreta psikologikoa ematen ditu krisi edo larrialdiko egoeratan.


SOS DEIAK 112

Era guztietako **LARRIALDIETARAKO** arreta ematen duen **24 orduko doako telefono-zenbakia.**

- Polizia, bai Ertzaintza -EAEko polizia-, bai Polizia Nazionalea, bai Guardia Zibila.
- Informazioa eta babesa eskain diezazkieten laguntza-zerbitzuak dituzten erakunde eta elkarteak (*ikus Errekurtsoen Zerrenda*).

NORTZUK LAGUN DIEZAIOKETE SALEROSKETAREN BIKTIMARI?

- Lagunek eta lankideek.
- Bezeroek.
- Auzokideek.
- Osasun-zerbitzuetako langileek.
- Bere egoeraren berri duten pertsona guztiek



Errekurtsoen zerrenda

24 orduko arretarako telefono-zenbakia

Euskal Autonomia Erkidegoan	☎ 900 840 111	Genero-indarkeriaren Biktima diren emakumeei Arreta
Espainia osoan	☎ 112	LARRIALDIAK
	☎ 016	Tratu txarren biktimak

Informazioa eta arreta jasotzeko

Euskal Autonomia Erkidegoa

ASKABIDE

Salerosketaren biktima diren eta/edo prostituzioan diharduten pertsoneri erabateko arreta eta harrera.

☎ 944 164 828

✉ info@askabide.org

Bilbao

GIZARTERAKO

Emakume prostituta edo prostituituari arreta, gizarteratzeko eta leheneratzeko.

☎ 945 269 012

Vitoria-Gasteiz

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.

Astelehen, asteazken eta ostegunetan 16:00etatik 18:00etara.

AUKERA

Prostituzioan diharduen pertsonari arreta eta harrera.

☎ 943 45 77 38 ✉ aukera@aukera.org

Irún: Astelehenetan 10:00etatik 12:45era.

Astearteetan 16:00etatik 20:45era.

Donostia / San Sebastián

Astearte, asteazken eta ostegunetan

11:00etatik 14:30era.

Astelehen eta asteazkenetan 16:30etik 20:00etara.

MUNDUKO MEDIKUAK

Osasun-txartelik ez duten pertsona etorkinei gizarte eta osasuneko arreta: mediku-kontsulta, gizarte-kontsulta eta buru-osasuneko taldea.

☎ 944 790 322

☎ 608 218 396 (mugikorra)

Bilbao

LEIHO ZABALIK – OBLATAS

Salerosketaren biktima diren edo/eta prostituzio-egoeran dauden emakumeei erabateko arreta eta harrera

☎ 660 926 870 (mugikorra)

✉ oblatasleioz@telefonica.net

Bilbao

BIZKAIKO HIESAREN AURKAKO HIRITAR BATZORDEA

Prostituzioan diharduten eta etorkinak diren pertsoneri arreta.

☎ 94 416 00 55

☎ 94 416 03 07

Bilbao

CEAR EUSKADI – ERREFUXIATUARI LAGUNTZA EMATEKO BATZORDEA

Asiloa eskatzen duten pertsoneri arreta eta babesa: laguntza juridiko eta soziala, harrera.

☎ 94 424 88 44

Bilbao

ARABAKO HIESAREN AURKAKO HIRITAR BATZORDEA

Prostituzioan diharduten eta etorkinak diren pertsoneri arreta

☎ 945.257.766 <http://www.sidalava.org/>

San Frantzisko kalea 2-1º • 01001 Vitoria Gasteiz

Beste Autonomia Erkidego batzuetan

Andaluzia

MZC – EMAKUMEAK GATAZKA-GUNEETAN

Salerosketaren biktima diren edo/eta prostituzioan diharduten emakumeei arreta eta konpainia emateko programa.

☎ 957 082 000

☎ 902 157 682

Kordoba

AL ALBA ZENTROA

Zailtasunak dituzten edo gizarte-bazterkerian dauden emakumeei aholkularitza eta babesa: orientazioa gizartean eta lanean, aholkularitza psikologikoa.

☎ 954 901 283 ☎ 618 305 529 (mugikorra)
Sevilla

VICTORIA KENT, EMAKUME AURRERAKOIEN ELKARTEA

Salerosketaren biktima diren pertsonak antzema-teko eta horiei arreta zuzena emateko programa.

☎ 956 63 32 99

✉ asociacion@ampvictoriakent.org
Algeciras (Cádiz)

Asturias

SICAR ASTURIAS – ADORAZIOKO ELIZKIOIAK

Salerosketaren biktima izan diren emakumeei harrera, arreta zuzena eta aholkularitza juridiko eta psikologikoa emateko programa.

☎ 985 33 47 09 ☎ 650 26 41 62 (mugikorra)

✉ info@sicarasturias.org
Gijón

Madril

APRAMP

Larrialdietarako erabateko arreta, ostatua, eta babesa, Espainian gelditzeko edo jatorrizko herrialdera modu seguruan itzultzeko

☎ 91 530 32 87

☎ 609589479 (mugikorra) 24 ordu

✉ apramp2003@yahoo.es
Madril

ESPERANZA PROIEKTUA

Salerosketaren biktimei erabateko babesa.

☎ 913 860 643

☎ 607 542 515 (mugikorra)

Madril

HETAIRA

Prostituten eskubideak babesteko taldea. Salerosketaren biktimen identifikazioa eta hasierako arreta.

☎ 915 232 678

✉ hetaira@colectivohetaira.org
Madril

Astelehenetik ostegunera 16:00etatik 20:00etara.

FMP- EMAKUME AURRERAKOIEN FEDERAZIOA

Ikerketa, informazioa eta prebentzioa.

☎ 900 502 091

Genero-indarkeriaren biktima diren pertsonentzako doako telefono-zenbakia.

RESCATE INTERNACIONAL GKE

Salerosketaren biktima izanik asiloa eskatzen dutenei aholkularitza juridiko eta soziala.

☎ 91 447 28 72

☎ 91 447 29 60

✉ rescate@ongrescate.org

Madril, Valentzia eta Talavera de la Reina

AMARANTA ELKARTASUN FUNDAZIOA

Prostituzioaren edo bazterkeria-egoeren eragina jasaten duten emakume eta nerabeen leheneratzea eta gizarteratzea.

☎ 91 519 67 49

☎ 646 42 38 80 (mugikorra)

✉ info@fundacionamaranta.org

Madril

MIGRAZIOETARAKO MUNDUKO ERAKUNDEA (IOM)

Salerosketari buruzko informazioa eta laguntza, beste erakunde batzuen bidez.

☎ 91 44 57 11 6

✉ iommadrid@iom.int

Madril

CEAR ESPAINIA - PRREFUXIATUARI LAGUNTZA EMATEKO BATZORDEA

Asiloa eskatzen duten pertsonen arreta eta babesa: laguntza juridiko eta soziala, harrera.

☎ 91 598 05 35

☎ 91 598 05 92

Madril

ATIME - MAROKO LANGILE ETORKINEN ESPAINIAKO ELKARTEA

Marokoarren gizarteratzea eta laneratzea Espainian: arreta sozial, juridiko eta hezkuntzakoa. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen konpainia egiteko Salime programa.

☎ 911 150 370

Madril

Balearrak

CASAL PETIT

Prostituzioan diharduten emakumeen harrera emateko proiektua: arreta, konpainia, lan-orientazioa.

☎ 971 722 707

✉ casalpetit@telefonica.net

Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik

14:00etara.

Asteleheneretik ostegunera 16:00etatik

19:00etara.

Palma

Katalunia

GENERA – LMAKUMEEN ESKUBIDEAK BABESTEKO ELKARTEA

Prostituzioan dihardutenei arreta zuzena, sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioa eta eskubideen babesa. Sexu-esplotazioari buruzko programa espezifikoa.

☎ 687 42 63 64 (mugikorra)

☎ 678 71 55 69 (mugikorra)

Katalunia

APIP – LANERATZEKO ETA SUSTAPENERAKO ELKARTEA

Salerosketaren biktima diren edo/eta prostituzioan diharduten emakumeei larrialdietarako laguntza eta erabateko harrera: aholkularitza eta babes soziala, gizarteratzea eta laneratzea.

☎ 93 317 16 14

Bartzelona

Astelehenetik ostegunera 9:00etatik 18:30era. Ostiraletan 9:00etatik 15:00etara.

SICAR CAT – ADORAZIOKO ELIZKOIAK

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeei erabateko harrera eta arreta.

☎ 679 65 40 88 (mugikorra) 24 orduko

telefono-zenbakia

Bartzelona

Extremadura

ADHEX – GIZA ESKUBIDEEN EXTREMADURAKO ELKARTEA

Sexu-esplotazioaren biktimei arreta, aholkularitza juridikoa eta soziala. Prestakuntza eta sentsibilizazioa.

Cáceres ☎ 927 629 370 ☎ 927 629 371

Badajoz ☎ 924 221 240

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ASTERIA PROIEKTUA

Sexu-esplotazioaren biktimei erabateko arreta.

Cáceres ☎ 927 629 370

Badajoz ☎ 924 318 303

✉ malvaluna1@terra.es

✉ adhex@centroderechoshumanos.com

Galizia

ECOS DO SUR ELKARTEA (AFRODITA PROGRAMA)

Harrera-etxea eta babesa sexu-esplotazioaren biktima diren atzerriko emakumeei: gizarerako eta lanerako orientazioa, aholkularitza juridikoa, arreta psikologikoa, kultura arteko bitartekaritza.

☎ 981 150 118 ✉ ong@ecosdosur.org

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Murtzia

APRAMU – ARRISKU EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEN PREBENTZIORAKO, GIZARTERATZEKO ETA ARRETARAKO ELKARTEA

Harrera eta arreta emakume prostitutei.

☎ Faxa: 868 915 143

☎ Mugikorra. 653 202 998

✉ apramu@ono.com

CATS - SEXUAREN LANGILEEI BABESA EMATEKO BATZORDEA

Sexuaren langileei arreta: osasun eta gizarteko eskariei arreta, baldin eta Administrazioak horiek estaltzen ez baditu, lanerako arreta eta prestakuntza-arreta.

☎ 968 280 627 ✉ info@asociacioncats.org

Murtzia

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 15:00etara.
Arratsaldetan, aurretiatzko hitzordua hartuta.

APRAMP MURTZIA

Trafiko-sareen eta sexu-esplotazioaren biktimen diren emakumeei arreta emateko pisua.

☎ 968 295 359

ESTATU OSORAKO DOAKO BESTE TELEFONO BATZUK

☎ 900 19 10 10

Emakumei informazioa emateko doako telefono-zenbakia astelehenik ostiralera 9:00etatik 23:00etara, jaiegun nazionaletan salbu.

☎ 900 152 152

Emakume gorrei informazioa emateko doako telefono-zenbakia astelehenik ostiralera 9:00etatik 23:00etara, jaiegun nazionaletan salbu.

Europako beste herrialde mugakide batzuetan

Europa osoan

☎ 112 Larrialdiak, 24 ordu

Portugal

ETORKINARI LAGUNTZA EMATEKO LINEA

☎ 808 257 257 (telefono finkotik)

☎ 21 810 61 91 (telefono mugikorretik)

Astelehenetik larunbatara 8:30etik 20:30era.

Frantzia

BIKTIMEI LAGUNTZA EMATEKO TELEFONO-ZENBAKI NAZIONALA

☎ 08 842 846 37

Egunero 9:00etatik 21:00etara.

AC.SÉ (L'ACCUEIL SÉCURISANT) ASSOCIATION ALC – GIZAKIEN SALEROSKETAREN BIKTIMAK BABESTEKO ELKARTEA

☎ 08 250 099 07

Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 18:00etara.

Kanpaina hau
babesten dugu:



campaña
corazón azul
contra la trata
de personas

Erakunde honena:



UNODC

United Nations Office on Drugs and Crime

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HERRIZAINGO SAILA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

*Dirección de Atención a las Víctimas
de la Violencia de Género*